

XEDAPEN OROKORRAK

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

3924

ERABAKIA, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko uztailaren 19ko bileran hartutakoa, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen Arautegia onartzeko dena.

2012ko otsailaren 23ko Erabakiaren bidez, Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak ikastegietarako arautegi markoa onetsi zuen, Gobernu Kontseiluaren 2011ko ekainaren 23an onetsitako garapen-arautegia berrikusteko egutegia beteaz.

Arautegi marko hori oinarritzko arautegi gisa eratu da. Beraz, sailek horren gaineko alderdien inguruan arautu beharrekoaz erabaki dezakete, modu horretara, zeinek bere antolamendu autonomia bermatuz.

Ikastegien arautegi markoaren bigarren xedapen iragankorrek sei hileren epea ematen zuen, indarrean sartu zen egunetik hasita, ikastegiei bertan adierazitakora ekarri eta molda zitzaten tokian tokiko arautegiak.

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak, arautegi honen babesera etorruta, onartu egin zuen ikastegi batzarrak 2012ko ekainaren 22an egindako bileran bertako arautegiaren arautegi marko berrirako egokitzapena.

Hori guztia kontuan hartuta, eta ikusita idazkari nagusiaren proposamena, Gobernu Kontseiluak honako hau

ERABAKITZEN DU:

Lehenengoa.— Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen arautegia onartzea.

Bigarrena.— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Hirugarrena.— Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatearen Arautegia argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Leioa, 2012ko uztailaren 19a.

Errektorea,
IÑAKI GOIRIZELAIA ORDORIKA.

Idazkari Nagusia,
EVA FERREIRA GARCÍA.

ERANSKINA

UPV/EHU-KO GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEAREN ARAUTEGIA

1. artikulua.— Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 9.2 artikuluen zehaztapena.

2.— Ikastegiko Batzarrak 40 kide hautetsi izango ditu era honetara banatuta sektoreen arabera:

Unibertsitatearekin lotura iraunkorra daukaten irakasle eta ikertzaileak: 24.

Gainerako irakasle eta ikertzaileak: 2.

Ikasleak: 9.

Administrazio eta zerbitzuetako langileak: 5.

2. artikulua.— Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 11. artikuluen zehaztapena.

Ikastegiak Batzorde Iraunkorra dauka, era honetara osatua: dekanoa edo hark bere ordezkari izendatzen duen pertsona; ikastegiko idazkari akademikoa; administrazio eta zerbitzuetako langileen artean ikastegian ardura handiena daukan langilea; bederatzi kide era honetara banatuta: lotura iraunkorra daukaten irakasle eta ikertzaileen taldeko 5 ordezkari; gainerako irakasle eta ikertzaileen ordezkari bat; ikasleen bi ordezkari; administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

Batzorde Iraunkorraren eginkizunak Ikastegien Oinarrizko Arautegian zehaztutakoak izango dira, ezin eskuordetu daitezkeenak izan ezik; batzordearen funtzionamenduak, berriz, oinarrizko arautegi horretan bertan Ikastegiko Batzarrerako zehaztutako arau orokorrekin jarraituko die.

3. artikulua.— Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 14. artikuluen zehaztapena.

Euskarako Batzordea eratuko da, parte hartze, kontsulta eta aholkurako organoa izango dena, eta helburu izango du euskararen erabilera bultzatzea UPV/EHUko planifikazio orokorraren barruan, euskarazko irakats eskaintzaren plangintzan eta jarraipen lanean parte hartzea eta unibertsitate hedakuntzako eta prestakuntzako jarduerak sustatzea. Ondokoa izango da batzordearen osaketa: irakasle eta ikertzaileen taldeko bost kide, bat ikastegian ematen den titulazio bakoitzeko; ikasleen bi ordezkari, bat arlo bakoitzeko; eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

4. artikulua.— Berdintasuneko Batzordea. Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 5.2.1) artikuluen zehaztapena.

Oinarrizko arautegiak genero berdintasunaren inguruan 5.2.1) artikuluan jasotakoa garatzeko xedez, Berdintasuneko Batzordea eratuko da. Batzordeak bere gain hartuko ditu aipatutako arloaren barruan ikastegiari dagozkion eginkizunak, unean-unean aplikatu beharreko arautegiarekin bat etorrita. Ondokoa izango da batzordearen osaketa: irakasle eta ikertzaileen taldeko bost kide, bat ikastegian ematen den titulazio bakoitzeko; ikasleen bi ordezkari, bat arlo bakoitzeko; eta administrazio eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

5. artikulua.— Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 10.2.b) artikuluen zehaztapena.

2.b) Ikastegiko Batzarren eginkizuna da ikastegiko arlo akademikoan eragina duten oinarrizko erabakiak hartzea, eta, bereziki, ikastegiko dekanoa aukeratzea.

6. artikulua.— Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 7. artikuluen zehaztapena.

Ikastegiko dekanoa hautatzeko, botoa aldez aurretik ematea onartuko da, Hauteskundeei buruzko arautegi orokorreko 7. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

7. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 17.1 artikuluen zehaztapena.

1.– Kide anitzeko organoko kide izatea norberari dagokion ezaugarria da eta ezin da beste inoren gain utzi. Estatutuen 166. artikuluan aipatutako arrazoiengatik utziko dio organoko kide batek kide izateari. Kide izateari utziko dio bileretara justifikazio gabe huts eginez gero, eta hain zuzen ere elkarren segidako lau bileretara edo txandakako zortzi bileretara justifikatu gabe huts eginez gero.

8. artikulua.– Ikastegien Oinarrizko Arautegiko 23.2 artikuluen zehaztapena.

2.– Erabakiak hiru egun balioduneko epean argitaratu beharko dira beranduen jota, eta datuak babesteko legeria errespetaturik betiere. Erabakiok iragarki ohol ofizialean eta ikastegiko web orrian argitaratuko dira. Edozelan ere, organoko idazkariak eta buruak bermatu egin beharko dute bileran hartutako erabakiak argitaratu egiten direla eta gutxien dela hilabete daudela jendaurrean.

9. artikulua: Epaimahaiak.

Beharrezkoa izanez gero epaimahaia eratzea 1., 2., 3. edo 4. deialdirako, 5. eta 6. deialdietako epaimahaiak arituko dira, ikasleen ebaluazioari buruzko arautegiak dioen moduan.

10. artikulua: Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.2 artikuluen zehaztapena.

Ikastegiko kide anitzeko organoetan sortzen diren hutsuneak hautagai zerrenda bereko hurrengo kide ez hautetsiek beteko dituzte, idazkaria hutsunearen jakitun jartzen denetik hilabeteko epean.

11. artikulua: Hauteskundeei buruzko Arautegi Orokorreko 4.3 artikuluen zehaztapena.

Ikastegiko Batzarreko kide titularra kanpoan edo gaixorik dagoenean eta, oro har, bertan ez dagoenean horretarako arrazoiak emanda, zerrenda bereko hurrengo kide ez hautetsiak bete ahalko du haren lekua. Horretarako, bilera baino astebete lehenago eman beharko dio horren berri ikastegiko idazkari akademikoari egiaztagiria aurkeztuta, eta horrez gain, behin-behineko ordezkorako baimena ematen duela adierazten duen agiria.